

## AZ FABRIK

2016/10/14

Bizkaiako hiriburuak aurkeztutako proposamena, 378 ekimenen artean aukeratuak izan diren 20etako bat izan da. Bilboko Udalak aurkeztutako proiektu honen helburu nagusia, ezagutza arloan sendoak diren proiektuak bultzatzea da. Europar Batasunak emandako diru laguntza honek, Udalak garapen ekonomikoarekin, aberastasun sorrerarekin eta kalitatezko enplegurekin duen konpromisoari babesa ematen dio. Aldi berean, horretarako, Zorrozaurren berreskuratu behar den eraikin publiko batentzako bermea izango da. Eraikin hori, 4.0 industriaren arloan, erreferente izatera eraman nahi da.

Ekimen honen bitartez, enpresek, profesionalek, unibertsitate ikasleek eta ekintzaileek, 4.0 industriaren eremuan kalitatezko zerbitzuak eman ahal izateko beharko dituzten ezagutza eta trebezia teknikoak jasotzeko aukera izango dute.

AS FABRIK, Bilbon berrikuntza ekosistema batentzako aukera esparru bat bezala aurkezten da. Proiektu honetan, Bilboko Udalarekin batera, kide estrategiko bezala, MONDRAGON Korporazioa, MONDRAGON UNIBERTSITATEA (Goi Eskola Politeknikoa eta Enpresagintza Fakultatea), MIK, Orkestra, GAIA, IDOM eta EIKEN daude.

